# I ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Foru Aginduak*

### HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**3.256**

**394/2006 FORU AGINDUA, maiatzaren 11koa. Honen bidez Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren urtarrilaren 25eko 38/2006 Foru Aginduan jarritako betebeharrak betetzea onartzen dela adierazten da. Azken foru agindu horren bidez behin betiko onartu zen Iruña Okako udal planeamenduko ordezko arauetako SAU-VI sektorearen (Villodas) plan partzialari buruzko espedientea.**

AURREKARIAK

Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren urtarrilaren 25eko 38/2006 Foru Aginduaren bidez Iruña Okako udal planeamenduko ordezko arauetako SAU-V1 sektoreko (Villodas) plan partzialaren espedientea behin betiko onartu zen.

Foru agindu horrek betearazte-indarra izan zezan, baldintza bat jarri zen: bertan adierazitako aldaketak espedientean jasotzea.

Iruña Okako Udalak, 2006ko apirilaren 12an, espedientearen testu bateratua igorri zuen foru aldundira betearaztekoa zela aitor zezan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Espedientea osatzen duten agiriak aztertu ondoren, aipatutako foru aginduan ezartzen ziren aldaketak bete direla egiaztatu da. Bete ere, Hirigintza Zerbitzuaren txostenean ezarritako eran.

Horregatik guztiagatik, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren urtarrilaren 25eko 38/2006 Foru Aginduan ezarritako baldintzak betetzat ematea. Foru agindu horren bidez Iruña Okako udal planeamenduko ordezko arauetako SAU-V1 sektoreko (Villodas) plan partzialaren espedientea, udalak berak sustatu eta izapidetutakoa, behin betiko onartu zen. Hala ere, udalari ohartarazten zitzaion udal zerbitzuen txosten batean oinezkoen auziari emandako irtenbidea arrazoitu ondoren eta urbanizazio proiektua onartu aurretik, espedientea Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari bidaliko ziola.

Bigarren.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Hirugarren.- Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertze-errekurtsoa (administrazioen kasuan, errekerimendua), berriz, foru agindu hau eman duen organoari. Hilabete izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 11.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

### HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**3.257**

**395/2006 FORU AGINDUA, maiatzaren 11koa, Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 43 sektoreko (Miñao Gutxia) Konpentsazio Batzarra Arabako Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan sartzeko espedienteari buruzkoa.**

Vitoria-Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean 2006ko apirilaren 26an sarrera izan zuen idazki baten bi-

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**3.256**

**ORDEN FORAL 394/2006, de 11 de mayo, en relación con la aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral 38/2006, de 25 de enero, de la Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, por la que se aprobó definitivamente el expediente del Plan Parcial del sector SAU-VI de Víllodas, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Iruña de Oca.**

ANTECEDENTES

Mediante Orden Foral número 38/2006, de 25 de enero, de la Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, se aprobó definitivamente el expediente de Plan Parcial del sector SAU-V1 de Víllodas, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Iruña de Oca.

La ejecutoriedad de la citada Orden foral, no obstante, quedó condicionada a la introducción en el expediente de las modificaciones que se señalaban en la misma.

Con fecha 12 de abril de 2006, el Ayuntamiento de Iruña de Oca ha remitido a la Diputación el texto refundido del expediente a fin de que sea declarada la ejecutoriedad del mismo.

FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada se comprueba que ha dado cumplimiento a las modificaciones impuestas en la Orden Foral mencionada, con las matizaciones señaladas en el informe del Servicio de Urbanismo.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral número 38/2006, de 25 de enero, de la Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, por la que se aprobó definitivamente el expediente de Plan Parcial del sector SAU-V1 de Víllodas, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Iruña de Oca, promovido y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio, advirtiendo al Ayuntamiento que previamente a la aprobación del proyecto de urbanización, y tras justificar la solución adoptada sobre la vialidad peatonal en un informe de los servicios municipales, dará traslado del expediente al Consejo Vasco de Accesibilidad.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Lo que se publica para general conocimiento.

Vitoria-Gasteiz, a 11 de mayo de 2006.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

### DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**3.257**

**ORDEN FORAL 395/2006, de 11 de mayo, en relación con expediente de inscripción de la Junta de Compensación el Sector 43 de Miñano Menor, del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz, en el Registro de Entidades Urbanísticas Colaboradoras de Álava.**

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, mediante escrito con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del